

ZUTIK EUSKAL HERRIA! URIBE KOSTA ere ZUTIK!

Aspalditik datorkigun gatazka politiko baten erdian bizi gara. Hamarkada luzeak eman ditugu borrokatzen, bideak zabaltzen eta Estatuaren asimilazioaren aurka herri barrikada altxatzen. Borrokatu dugu eta akordio bat erdiesteko, etengabe proposamen egingarriak eta demokratikoak mahai gainean ipini ditugu. Estatuaren erantzuna errepresioa eta ukapena izan da.

Euskal Herritarren gehiengo zabal batek beste marko demokratikoa nahi du eta Estatuak errepresioaren bitartez blokeoa inposatzen erantzuten ari dira. Askatasunera doazen bide guztiak itxi nahi dituzte eta hori ikusita, Ezker Abertzaleak eztabaida egin du. Ez gutxiren artean edo ezkutuko gelan. Aitzitik, kidegoak eta oinarri sozialak osatzen duten batzar gela nagusira ekarri dugu eztabaida. Ariketa demokratiko eraginkorra izan da gainera, ezinbesteko dugun estrategia politikoak zehazteko balioko duena. Uribe Kostako herrietan ere, ariketa sakon honetan partaide izan gara.

Gaurko agerraldi honetan, Uribe Kostako Ezker Abertzalearen urteetako ibilbidean ibili garen eta gabiltzan belaunaldi ezberdinetako kideok, eztabaida honetatik atera berri ditugun ondorioekin eta gauzatzen ari garen bidearekin bat egiten dugu. Herri honen borroka luzearen fase berri batean sartzen ari gara. Ez da ezeren amaiera, iniziatiba politikoak berreskuratzeko hautuaren eskutik askatasunerantz doan bide berri baten hasiera baizik.

Gaur egun baldintzak egon badaude, ederki kostata lortu ditugunak hain zuzen ere. ZUTIK EUSKAL HERRIA adierazpenak hauxe dio: *“konpromisoaren ordua da. Urratsak emateko ordua. Eta une honetan, Ezker Abertzaleak jakin badaki gako nagusia ez dela gainerako eragileak zer egiteko prest diren ezagutzeko zain egotea. Gakoa guk geuk egin beharrekoan dago. Hartara, gure indarrak eta arrazoibideak egoera berriak sortuko ditu, gainerako eragileen jokabidea baldintzatu ahalko dute eta, are garrantzitsuagoa dena, Euskal Herria bere buruaren jabe izateko bidean gero eta herri babes handiagoa sortuko dute.”*

Baieztape horrek oso ondo laburbiltzen du herriz herri, ezkerreko abertzaleok eduki behar dugun portaera. Hemen bildu garenok, gure herrietan denbora berri hau gaurdanik martxan ipintzeko hautua egiten dugu eta gure herrietako jendarterari eta ezkerreko independentista guztioi deia egiten diegu ilusioz bide berri honetan indar guztiak aska ditzagun, gure sormena ahalmen guztia dantzan ipin dezagun eta ezkerreko proiektu independentista errealtate politikoaren eta sozialaren erdian koka dezagun.

Apustu politiko hau egitea gure aldekarreko apustua da. Ez gaude prest Estatuak markatutako blokeoaren anabasan gelditzeko. Erabaki honekin gure esku dauden baldintzak sortuko ditugu ezberdinen arteko elkarlana eta dinamika berriak ahalbideratzeko. Ekimen politiko hori gorpuzteko eta Marko Demokratikoa lortzeko tresna izango den Prozesu Demokratikoa, jadanik martxan ipini dugu.

Uribe Kostan aldaketa politiko erabat beharrezkoa da, gure herrietan pairatzen ari garen porlanaren eraso gelditzeko, errepresioari mugak jartzeko, euskararen normalizazioa egi bihurtzeko, kultura parte hartzailea gure eguneroko bizi modua izan dadin, emakumeen eskubideak bermatzeko eta gazteriaren askatasun osoa bultzatzeko.

Aldaketa politikoari hasiera eman diogu eta berria jendarteratu behar dugu. Hori dela eta, maiatzean zehar Zutik Euskal Herria adierazpenaren sozializazio kanpaina burutzen ari gara. Jendeak apustuaren tamaina jakin behar duelako. Komunikabideek ezkutatu nahi duten ekimen estrategiko hau lau haizeetara zabaltzeko. Herri aktibazioaren apologia egiteko. Hori dela eta, Uribe Kostako Ezker Abertzalearen kide garenok egun osoko EKITALDIA prestatu dugu hurrengo ekainaren 6an Erromo-Itzubaltzetan. Hau da egitaraua: 13etan Ekitaldi Politikoa. 15:00 Herri bazkaria. 16:30 euskal kantak eta 18etan erromeria.

Egun horretan bide berri honekin Uribe Kostako ehunaka herritarrok bat egingo dugu. Zuk ere bat egin dezazun deia egiten dizugu. Nelson Mandelaren hitzak harturik hau esaten dugu: *“Ez dugu bidaiaren azken urratsa eman, baina bai aldiz luzea eta zaila izango den bidaiaren lehen urratsa.”* Askatasuna lortzera goaz. Gure ordua da. Zutik Euskal Herria! Uribe Kosta ere zutik!

Uribe Kosta, 2010ko maiatzaren 16an

ZUTIK EUSKAL HERRIA! URIBE KOSTA ere ZUTIK!

Vivimos en medio de un conflicto político que viene de mucho tiempo atrás. Son décadas de lucha abriendo caminos y alzando una barricada contra la política de asimilación de los Estados. Al mismo tiempo hemos buscado acuerdos, poniendo continuamente sobre la mesa propuestas democráticas realizables que siempre han recibido de los Estados la respuesta de la represión y la negación.

Una amplia mayoría del pueblo vasco demanda otro Marco Jurídico Democrático y los Estados están haciendo frente a esta demanda creando una situación de bloqueo mediante el empleo de la represión. Quieren cerrar todos los caminos que conducen a la libertad y tomando nota de ello, la Izquierda Abertzale ha llevado a cabo un debate. No ha sido un debate entre unos pocos y en una sala cerrada. El debate se ha desarrollado en una gran sala a la que ha tenido acceso toda la militancia y toda la base social de la Izquierda Abertzale. Ha sido un ejercicio democrático y eficaz, ya que ha supuesto llegar a concretar la estrategia política que creemos más acertada para este momento histórico. En los pueblos de Uribe Kosta también hemos sido partícipes de este debate.

En esta comparecencia, personas de diferentes generaciones que hemos participado y participamos en el proyecto político de la Izquierda Abertzale, nos sumamos a las conclusiones a las que hemos llegado en este debate y a los pasos que se están dando para dar cuerpo y concreción al camino decidido. Estamos entrando en una nueva fase de la larga lucha que este pueblo está llevando a cabo por su liberación. Esto no es el final de nada, sino el inicio de un nuevo camino surgido de la apuesta por recuperar la iniciativa política.

Hoy en día existen condiciones para ello, unas condiciones conseguidas en años de lucha y trabajo. La declaración ZUTIK EUSKAL HERRIA dice textualmente: *“De hecho, es la hora del compromiso. Es la hora de dar pasos. Y en este momento, la Izquierda Abertzale es plenamente consciente de que la clave no está en esperar a conocer lo que el resto de agentes están dispuestos a hacer, sino en lo que nosotros y nosotras debemos hacer. De ese modo, nuestra fuerza y nuestra razón traerán nuevas situaciones, podrán condicionar la actuación del resto de agentes y, lo que es aún más importante, lograrán cada vez una mayor adhesión popular para que Euskal Herria sea dueña de su futuro.”*

Esta afirmación resume a la perfección la disposición que pueblo a pueblo debemos tener los y las abertzales de izquierdas. Las personas que aquí nos hemos reunido, nos comprometemos desde hoy a poner en marcha el nuevo tiempo político y emplazamos tanto a los y las independentistas de izquierdas, como al conjunto de la ciudadanía, a liberar con ilusión todas nuestras potencialidades, a poner en movimiento toda nuestra creatividad y a colocar el proyecto independentista de izquierda en el centro de la vida social y política de nuestro entorno.

Hacer esta apuesta política es nuestra decisión unilateral. No tenemos ninguna intención de permanecer bloqueadas en la maquinaria represiva del Estado. Con esta decisión vamos a activar todas las condiciones que estén en nuestras manos para hacer realidad nuevas dinámicas e iniciativas compartidas con otros agentes y para convertir en ofensiva política la confianza que tenemos en la mayoría social de nuestro pueblo. Por ello, ya hemos puesto en marcha el Proceso Democrático que será el instrumento para dar cuerpo a esta iniciativa política y para alcanzar un nuevo Marco Democrático.

En Uribe Kosta el cambio político es totalmente necesario para hacer frente a la especulación urbanística, para poner diques a la represión, para conseguir una normalización real del euskara, para hacer una realidad cotidiana la cultura participativa, para garantizar los derechos de las mujeres y para dar alas a la verdadera libertad de la juventud.

El cambio político está en marcha y queremos difundir la noticia entre nuestros vecinos y vecinas. Para ello, durante el mes de mayo estamos desarrollando un trabajo de socialización de la declaración ZUTIK EUSKAL HERRIA. Porque la ciudadanía debe conocer la trascendencia de la apuesta. Para divulgar a los cuatro vientos la nueva realidad que quieren silenciar los grandes medios de comunicación. Para hacer apología a favor de la activación de los y las independentistas de izquierda. Por ello, las personas de la Izquierda Abertzale de Uribe Kosta hemos preparado un acto político a celebrar durante todo el día, el próximo 6 de junio en Erromo-Iltzubaltzeta. El programa es el siguiente: A las 13 horas ACTO POLITICO. A las 15 h. Comida Popular. A las 16:30 Euskal Kantak y a las 18:00 Erromeria.

Ese día cientos de personas de Uribe Kosta vamos a juntarnos a este camino. Te invitamos a que tú también te sumes. Tomando unas palabras de Nelson Mandela decimos: *“No hemos dado el paso definitivo del viaje, pero sí el primer paso de un largo y difícil camino.”* Vamos en busca de la libertad. Es nuestra hora. Zutik Euskal Herria! Uribe Kosta ere zutik!

Uribe Kosta, 16 de mayo de 2010